

Recurso 4/2013 Errekurtsoa
Resolución 4/2013 Ebazpena

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Sekretaria

María Yeregui Hernández

BPG COORDINADORES DE SEGURIDAD SL enpresak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri du Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuaren 2013ko uztailaren 2ko 83-C/2013 Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez DARZAL CONSULTORÍA Y PREVENCIÓN SL eta SEGURIDAD SL enpresek osatu beharreko enpresen aldi baterako batasunari esleitu zitzaion zerbitzuetako kontratu hau: Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sarean artapen orokor, konponketa eta birgaitze lanak egiteko zerbitzu kontratuetan laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena eta kontrola. (1-SR-513/2013). Bada, errekurtso berezi hori dela-eta, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2013ko azaroaren 4an egindako bileran, goian aipatutako kideak bertan daudela, erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por BPG COORDINADORES DE SEGURIDAD, S.L. contra la Orden Foral 83-C/2013, de 2 de julio, de la Diputada del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias, por la que se adjudica a la Unión Temporal de Empresas a constituir por DARZAL CONSULTORÍA Y PREVENCIÓN S.L. y SEGURINCO S.L. el contrato de servicios para el “Seguimiento y control de la prevención de riesgos laborales en los contratos de servicios para la ejecución de operaciones de conservación ordinaria, reparación y rehabilitación de las carreteras de la Red Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa” (expediente 1-SR-513/2013), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 4 de noviembre de 2013, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2013ko uztailaren 23an, (...) idatzi bat sartu zen epaitegi honetako erregistroan. Idatzi horren bidez, BPG COORDINADORES DE SEGURIDAD SL enpresaren izenaren eta ordezkartzan ari zela, kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen aipatu den foru aginduaren aurka.

Kontratazio organoaren aurrean uztailaren 23ko aurkeztutako idatzi baten bidez, parte hartzailearen ordezkartza egiaztatzen duen agiria erantsi zitzaion errekurtso idatziari, eta, horrez gain, errekurritutako erabakiaren kopia eta 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bategina (aurrerantzean, Kontratuen Legea) onartzen duenak, 44.1 artikuluan aipatzen duen aldeza aurreko iragarkia. Errekurtsogileak bere eskubidea oinarritzeko aurkeztu dituen agiriak ere erantsi dira.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- El día 23 de julio de 2013 tuvo entrada en el registro de este Tribunal un escrito por el que (...), actuando en nombre y representación de BPG COORDINADORES DE SEGURIDAD S.L., interpone recurso especial en materia de contratación contra la referida Orden Foral.

Al escrito se acompaña el documento que acredita la representación del interviniente, así como copia de la resolución recurrida y del anuncio previo al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF), efectuado mediante escrito presentado el mismo día 23 de julio ante el órgano de contratación. Se acompañan también los documentos en los que la recurrente funda su derecho.

BIGARRENA.- Epaimahaiak errekurtsuaren kopia bat bidali zion Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Idazkaritza Teknikoari, eta espedientea eta bidezko txostena eskatu zizkion, Kontratuen Legeak 46.2 artikuluan agintzen duen bezala. Era berean, gogarazi zion ezen, Kontratuen Legeko 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea etenda geratzen zela, kontuan harturik errekurtsu hori esleipen egintzaren aurka aurkeztu zela.

Abuztuaren 1ean, eskatutako espedientea jaso zen Epaimahaian, 837 orrikoa, eta baita Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burukoa errekurtsuari buruz egindako txostena ere.

HIRUGARRENA.- Auzitegi honek, Kontratuen Legeko 46.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta irailaren 3an jakinarazi zen abuztuaren 30eko ofizioaren bitartez, errekurtsua bidali zien DARZAL CONSULTORÍA Y PREVENCIÓN SL eta SEGURINGO SL enpresei, bost laneguneko epean alegazioak aurkezteko aukera emanez.

Vigoko posta etxean irailaren 9an aurkeztu eta auzitegi honek 18an jaso zuen idatzi baten bidez, (...) andreak, aldi baterako enpresa esleipendunaren gerente gisa ari zela, bere alegazioak egin zituen eta errekurtsua ezestea eskatu zuen.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Errekurtsua onartua izateko aukera

LEHEN.- Errekurtsu berezi hau zerbitzuetako kontratu baten esleipen egintzaren aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 272.237,50 euro da, BEZik gabe.

Horrela bada, kontuan harturik esparru akordio batez ari garela, zeinaren egitekoa den Kontratu Legearen 16.1.b.) artikuluan aipatzen diren eta erregulazio harmonizatuari lotuak dauden zerbitzu kontratuak bideratzea, kontratazio gaietako errekurtsu berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatua baitago 40. artikuluko 1.a) eta 2.c) apartatuetan. Eta errekurtsu horren berri izateko eskumena auzitegi honi dagokio, Kontratazio Alorreko Errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboa sortzeko eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, 2.3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA. Errekurtsua Kontratuen Legeko 42. artikuluan xedatutako legitimazioaren eskakizuna betetzen duen pertsona batek jarri du, betiere 44.2 artikuluan finkatutako epearen barruan eta asmo horren berri, 44.1 artikuluan ezarritako eran, kontratazio organoari aurretik emanda.

SEGUNDO.- El Tribunal remitió una copia del recurso a la Secretaría Técnica del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias y le solicitó el expediente y el correspondiente informe, tal como ordena el artículo 46.2 TRLCSP. Le recordó asimismo que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 45 TRLCSP, y dado que el recurso se interpone contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso.

El 1 de agosto se recibieron en el Tribunal el expediente, que consta de 837 folios, y el informe emitido por el Jefe del Servicio de Conservación y Gestión Vial en relación con el recurso.

TERCERO.- En cumplimiento del artículo 46.3 TRLCSP, mediante oficio de 30 de agosto, notificado el día 3 de septiembre, el Tribunal dio traslado del recurso a DARZAL CONSULTORÍA Y PREVENCIÓN S.L. y SEGURINCO S.L. para que en el plazo de cinco días hábiles pudieran formular alegaciones.

Mediante escrito presentado en la oficina de Correos de Vigo el día 9 de septiembre y recibido en este Tribunal el 18, doña (...), en calidad de Gerente de la UTE adjudicataria, formuló sus alegaciones y solicitó la desestimación del recurso.


FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- El presente recurso especial se interpone contra el acto de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado es de 272.237,50 euros, IVA excluido.

Por lo tanto, tratándose de un contrato de servicios sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 16.1.b) TRLCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 40. Y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2 y habiéndolo anunciado previamente al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.



Gaiaren mamia

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko diputatuaren 2013ko martxoaren 19ko Foru Aginduaren bidez, "Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sarean artapen orokor, konponketa eta birgaitze lanak egiteko zerbitzu kontratuetan laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena eta kontrola. (1-SR-513/2013)" zerbitzuetako kontratuaren baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoaren agiriak onartu ziren eta kontratua esleitzeko prozedura irekiari ekitea xedatu zen. Litzitazioaren iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2013ko apirilak 4), Estatuko Aldizkari Ofizialean (2013ko apirilak 10) eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (2013ko martxoak 29).

Errekurtso honi dagokionez azpimarratu behar da ezen, **kontratuko baldintza administratibo berezien 9. atalaren arabera**, lizitatuzaileak dokumentu hauek sartu behar ditu 1. gutun-azalean, beste dokumentu batzuen artean, bere kaudimen teknikoa egiaztatzeko:

"c.2.b.2.- Kontratuan parte hartutako teknikarien edo unitate teknikoaren berri, enpresa barrukoak izan nahiz ez izan. Taldea osatuko dute kontratu honen ezaugarri teknikoaren agiriko 1. eranskinean (langile kopurua) zehazten diren lanpostuak, eta eduki beharko dituzte han zehazten diren titulazioa, hizkuntza ezagutza, espezializazioa, esperientzia eta dedikazioa.

Aurkeztu behar dira:

**Lanak egiteko erantzukizunezko karguak izango dituzten langileen curriculum vitaeak.*

** Eskatutako titulazioen egiaztatzea.*

c.2.b.3.- Lanak egiteko erabiliko dituen materialak eta bitarteko lagungarriek Ezaugarri Teknikoen Agirian adierazten diren zehaztapenak bete behar dituzte".

Beste aldetik, **ezaugarri teknikoaren agiriko 9. atalean** hau ezartzen da:

"9.- ESLEIPENDUNAREN BALIABIDEAK

Kontratu honek langileak eta baliabide materialak eskaintzea barne hartzen du, kontratatzen diren lanak

Fondo del asunto

Mediante Orden Foral de la Diputada de Movilidad e Infraestructuras Viarias de 19 de marzo de 2013 se aprobaron los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas del contrato de servicios de "Seguimiento y control de la prevención de riesgos laborales en los contratos de servicios para la ejecución de operaciones de conservación ordinaria, reparación y rehabilitación de las carreteras de la Red Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa" (expediente 1-SR-513/2013), y se dispuso la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato. El anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 4 de abril, en el Boletín Oficial del Estado el 10 de abril y en el Diario Oficial de la Unión Europea el 29 de marzo de 2013.

En lo que a este recurso afecta conviene resaltar que para justificar la solvencia técnica el **apartado 9 del pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato (PCAP)** exige que el licitador incluya en el sobre nº 1, entre otros documentos, los siguientes:

"c.2.b.2.- Indicación, conforme al anexo II de este pliego, del personal técnico o de las unidades técnicas, integradas o no en la empresa, participantes en el contrato. El equipo estará formado por los puestos de trabajo con la titulación, conocimiento lingüístico, especialización, experiencia y dedicación que se especifican en el Anejo nº 1 "Dotación de personal" del Pliego de Prescripciones Técnicas objeto de contrato.

Deberá presentarse:

**Curriculum Vitae del personal que asumirá los cargos de responsabilidad en la ejecución de los trabajos.*

**Acreditación de las titulaciones exigidas.*

c.2.b.3.- El material y medios auxiliares de los que se dispondrá para la ejecución de los trabajos cumplirán las especificaciones contenidas en el pliego de prescripciones técnicas".

Por su parte, el **apartado 9 del pliego de prescripciones técnicas (PPT)** establece lo siguiente:

"9.- MEDIOS DEL ADJUDICATARIO

El presente contrato incluye la disposición de personal y medios materiales para la óptima realización en el

une egokienean ahalik eta hoberen burutzeko.

Ondorio horietarako, aholkulariak kontratu honen esku jarriko dituen baliabideen zerrenda bat aurkeztuko du, lanaren kalitatea eta eraginkortasuna ez murrizteko behar adinako jarraitutasunarekin eta soil-soilik kontraturako erabiliko diren baliabideak zehaztuz.

Aholkulariak lantalde bat izendatuko du lanak egiteko, eta I. eranskinean adierazten diren gaitasun teknikoa eta esperientzia izango dute langileek. Lantaldearen buru ingeniari bat izango da, aholkulariaren ordezkari lanak egiteko, eta garatu beharreko lanen buru izango da, lanak koordinatuko ditu eta lanen zuzendaritza teknikoa izango du.

9.1 Langileak

Lantaldea gutxienez sei lagunek osatuko dute, eta I. eranskinean adierazten diren ezaugarri, betebeharrak, dedikazio eta lansaioak dituzten diziplina anitzeko talde gisa jardungo dute.

9.2 Baliabide materialak

Lana gauzatu ahal izateko behar diren informatika ekipoei (software eta hardware) eta erreproduzio ekipoei dagokienez, talde horrek testuen tratamendurako programak eta kalkulu-orrria izango ditu eskura; eta horrez gain, datuak transmititzeko ekipoa, inprimagailua eta fotokopiagailua koloretan, eta ohiko gainerako bitartekoak izango ditu. Horrez gain, gainbegiratu beharreko kontratuetako obra-toki edo lanetan, bideo irudiak grabatu, editatu eta erreproduzitzeko behar diren bitarteko audiobisualak ere edukiko dira.

Laneko bulegoak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egon behar du, kontratua gauzatzeko behar dituen bitarteko tekniko guztiez hornituta”.

Bestalde, baldintza administratibo berezien agiriak **esleipen irizpide hauek** ezartzen ditu:

Formula aritmetikoak erabilita baloratuko diren esleipen irizpideak:

-Prezioa: 0 puntutik 55era.

Formula aritmetikoak erabilita baloratuko ez diren esleipen irizpideak:

-Lanen, metodologiaren eta kalitatea bermatzearen azterketa: 0 puntutik 15era.

momento más oportuno de los trabajos que se contratan.

A estos efectos, el consultor presentará una relación de medios que pone a disposición de este contrato, con la suficiente continuidad para que no quede disminuida la calidad y eficacia del trabajo y especificando los medios con dedicación exclusiva al contrato.

El consultor designará un equipo para la realización de los trabajos que deberá tener la capacidad técnica y experiencia que se indican en el Anexo I. Al frente del equipo deberá estar un ingeniero que actuará como delegado del consultor y que estará al frente del equipo de trabajo coordinando y llevando la dirección técnica de los trabajos a desarrollar.

9.1 Personal

El equipo estará formado por un mínimo de seis personas como equipo multidisciplinar con las características, funciones, dedicación y jornada que se recogen en el Anexo I.

9.2 Medios materiales

En cuanto a los equipos informáticos (software y hardware) y de reproducción que se precisen para desarrollar el trabajo, se deberá contar con programas de tratamiento de textos y hoja de cálculo, así como equipos de transmisión de datos, impresora y fotocopidora en color y demás medios habituales. Se contará además con los medios audiovisuales necesarios para la grabación, edición y reproducción de imágenes de vídeo en los diferentes tajos u operaciones de los contratos a supervisar.

La oficina de trabajo habrá de estar situada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y dotada de todos los medios técnicos necesarios para la realización del contrato”.


En otro orden de cosas, los **criterios de adjudicación** previstos en el PCAP son los siguientes:

Criterios evaluables por aplicación de fórmulas aritméticas:

-Precio: de 0 a 55 puntos.

Criterios no evaluables por aplicación de fórmulas aritméticas:

-Estudio de los trabajos, metodología y aseguramiento de la calidad: de 0 a 15 puntos.



Atal honetan eskaintzaren ondorengoak kontuan edukiko dira:

*Kontratuaren lan nagusien azalpena, lan bakoitzaren berezitasun eta zehaztasunak adieraziz: 0 puntutik 10era.

*Kalitatea ziurtatzeko planaren deskribapena: 0 puntutik 5era.

-Eskaintza egiten duenak proposa ditzakeen hobekuntza teknikoak eta kalitatekoak, agirietan eskatzen dena gainditzen dutelarik, kontratuaren xederako interesgarriak direnak: 0 puntutik 30era.

Atal honetan, eskaintzetako ondorengo hobekuntzak kontuan edukiko dira:

*Hobekuntzak, errepideen artapen laneko segurtasun eta osasun gaietan adituak diren aholkularizetan: 0 puntutik 10era.

*Hobekuntzak, instalazio elektrikoaren mantentze lanetarako segurtasun eta osasun gaietan adituak diren aholkularizetan: 0 puntutik 10era.

*Hobekuntza informatikoak lanaren on-line jarraipenean: 0 puntutik 10era.

LAUGARRENA.- Eskaintzak aurkezteko epean, sei lizitatzailerengatik proposamenak jaso ziren.

2013ko maiatzaren 13an, Kontratazio Mahaiak "Gaitasuna eta kaudimena" 1 zenbakiko gutun-azalak ireki zituen eta gutun-azal horietako dokumentazioa kalifikatu zuen. Kalifikazio horren ondorioz, kaudimen teknikoaren zuriaketan atzeman zitzaizkion hutsegite batzuk konpon zitzaion eskatu zitzaion lizitatzaileretako bati (EUROCONTROL SA).

Maiatzaren 21ean, Kontratazio Mahaiak konpondutzat jo zituen atzemandako hutsegiteak, eta prozedurarekin jarraitzea erabaki zuen.

Maiatzaren 23an, 2 zenbakiko kutun-azalak irekitzeko ekitaldia egin zen jendaurrean. Gutun-azal horiek eduki behar zuten: batetik, lanaren exekuzioari buruzko txosten edo azterketa bat, lanak nola egin nahi diren azaldu eta zuzitzeko, eta, bestetik, zer hobekuntza tekniko eta kalitatezkoak proposatzen ziren.

Bide Artapen eta Kudeaketako Zerbitzuko buruak txosten bat egin zuen, ekainaren 10ekoa, 2 zenbakiko gutun-azalako dokumentazioari buruz.

En este apartado se considerarán los siguientes apartados de la oferta:

*Descripción de las labores principales del contrato indicando las especificidades y particularidades que tiene cada una de ellas: de 0 a 10 puntos.

*Descripción del Plan de Aseguramiento de la Calidad: de 0 a 5 puntos.

-Mejoras técnicas y de calidad sobre lo exigido en los pliegos que proponga el ofertante y se consideren de interés para el objeto del contrato: de 0 a 30 puntos.

En este apartado se considerarán las siguientes mejoras en las ofertas:

*Mejoras en asesorías especializadas en temas de seguridad y salud laboral en conservación de carreteras: de 0 a 10 puntos.

*Mejoras en asesorías especializadas en temas de seguridad y salud laboral en mantenimiento de instalaciones eléctricas: de 0 a 10 puntos.

*Mejoras informáticas en el seguimiento on-line del trabajo: de 0 a 10 puntos.

CUARTO.- En el plazo de presentación de ofertas se recibieron proposiciones de seis licitadores.

El 13 de mayo de 2013 la Mesa de contratación procedió a la apertura de los sobres nº 1 "Capacidad y solvencia" y a la calificación de la documentación contenida en ellos, como resultado de lo cual se acordó requerir a uno de los licitadores (EUROCONTROL S.A.) la subsanación de determinadas omisiones advertidas en la justificación de la solvencia técnica.

El 21 de mayo la Mesa de contratación tuvo por subsanadas las omisiones advertidas y acordó continuar con el procedimiento.

El 23 de mayo se llevó a cabo el acto público de apertura de los sobres nº 2, que debían contener, de un lado, una memoria o estudio de ejecución de los trabajos en que se explique y justifique la forma en que se pretenden realizar, y de otro, las mejoras técnicas y de calidad que se proponen.

La documentación contenida en los sobres nº 2 fue objeto de informe en fecha 10 de junio por parte del jefe del Servicio de Conservación y Gestión Vial.

Ekainaren 13an, Kontratazio Mahaiak bere egin zuen aipatutako txostena, eta, ondoren, 3 zenbakiko gutun-azalak ireki zituen, lizitatzailen proposamen ekonomikoei buruzkoak.

Baldintza administratibo berezien agiriko esleipen irizpideak aplikatuta, bi puntuazio hauek izan ziren onenak:

1. UTE SEGURINCO + DARZAL: 87,61 puntu.
2. BPG COORDINADORES: 83,24 puntu.

Hala, Kontratazio Mahaiak proposatu zuen SEGURINCO + DARZAL aldi baterako enpresa batasunari esleitzea kontratua, eskaintzarik onuragarriena harena baitzen.

2013ko uztailaren 2ko Foru Aginduaren bidez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako foru diputatuak erabaki zuen Kontratazio Mahaiak proposatutako lizitatzaileri esleitzea kontratua.

BOSGARRENA.- Ebazpen horren aurka, zeina uztailaren 10ean jakinarazi zen, BPG COORDINADORES DE SEGURIDAD SL enpresak errekurso hau jarri du, eta bertan adierazten du ezen, behin aztertuta esleipendunak bere proposameneko 1 zenbakiko eta 2 zenbakiko gutun-azaletan aurkeztu duen dokumentazioa, kontratuko agiriak hainbat kasutan urratu bide direla atzeman duela.

Zehazki, 1 zenbakiko gutun-azala dela eta ("Gaitasuna eta kaudimena"), errekurtsogileak uste du hutsegite hauek egin direla, esleipendunak aurkeztutako pertsonalaren kasuan:

-Enpresan lanean hasitako data dela eta, lantaldeko sei kideetako lauren datak ez datoz bat interesdunek berek Interneteko sare sozialetan azaltzen duten profil profesionalarekin.

-Koordinatzaileen arduradunak 0 dedikazioa izango du kontratuan, nahiz eta ezaugarri teknikoen agiriak % 100eko dedikazioa eskatzen duen.

-Ez da egiaztatu segurtasuneko eta osasuneko bi koordinatzaileek eginkizun horretarako eskatzen den gutxieneko esperientzia dutenik.

-Lantaldeko zuzenbideko lizentziadunak aurkezten duen Obretako Segurtasun eta Osasuneko Koordinatzailearen ziurtagiriak ez du gaitasun berririk azaltzen, ez du gutxieneko prestakuntzarik egiaztatzen, ez du ziurtagiria egin duena identifikatzen, ez du egiaztatzea noiz egin den zehazten, eta, azkenik, ziurtagiria egin duen entitatearen gizarte helbidea bat dator SEGURINCO SL enpresaren

El 13 de junio la Mesa hizo suyo el citado informe y a continuación procedió a la apertura de los sobres nº 3, que contenían las proposiciones económicas de los licitadores.

Una vez aplicados los criterios de adjudicación previstos en el PCAP, las dos mejores puntuaciones fueron las siguientes:

1. UTE SEGURINCO + DARZAL: 87,61 puntos.
2. BPG COORDINADORES: 83,24 puntos.

La Mesa acordó proponer la adjudicación del contrato a la oferta presentada por la UTE SEGURINCO + DARZAL, por ser la oferta más ventajosa.

Mediante Orden Foral de 2 de julio de 2013 la Diputada del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias adjudicó el contrato al licitador propuesto por la Mesa de contratación.

QUINTO.- Contra esta resolución, que le fue notificada el día 10 de julio, BPG COORDINADORES DE SEGURIDAD S.L. interpone el presente recurso, en el que dice que una vez examinada la documentación presentada por el adjudicatario en los sobres nº 1 y nº 2 de su proposición ha detectado varios posibles incumplimientos de los pliegos del contrato.


En concreto, por lo que se refiere al sobre nº 1 "Capacidad y solvencia", la recurrente cree haber detectado las siguientes irregularidades en la relación de personal presentada por la adjudicataria:

-Las fechas de ingreso en la empresa de cuatro de los seis miembros del equipo no coinciden con las que los interesados hacen constar en el perfil profesional que tienen expuesto en las redes sociales de Internet.

-La dedicación al contrato del responsable de coordinadores es 0, siendo así que el PPT exige el 100%.

-No está acreditado que los dos coordinadores de seguridad y salud tengan la experiencia mínima exigida en esa función.

-El certificado de Coordinador de Seguridad y Salud en Obras que presenta el Licenciado en Derecho integrante del equipo no le aporta nuevas competencias, no reúne el contenido formativo mínimo, no permite identificar a la persona que lo expide, no tiene fecha concreta de expedición, el domicilio social de la entidad expedidora coincide con el de SEGURINCO S.L., en definitiva existe una clara



gizarte helbidearekin. Hitz batean, lotura garbi bat dago entitate prestatzailearen eta aldi baterako enpresa batasan esleipenduna osatzen duten enpresen artean, eta ziurtagiria egin duenak ez du inolako ibilbiderik segurtasuneko prestatzaile gisa eraikuntzan. Horrez gain, koordinatzaile ikastaroko datak bat datoz hark egin zuen beste ikastaro bateko datekin, eta kontuan hartu behar langile hori Madrilen bizi zela eta ziurtagiria egin duen entitateak bere helbidea Vingon duela.

Errekurtsogileak adierazten du ez dela egia esleipendunak bulego bat duenik Donostian, adierazitako helbidean.

2 zenbakiko gutun-azala dela eta, errekurtsogileak adierazten du 1 zenbakiko gutun-azalean atzemandako irregularitasunak errepikatzen direla oraingo honetan ere, koordinatzaileen arduradunak kontratari eskainiko dion dedikazioari dagokionez, segurtasuneko koordinatzaileen gutxieneko esperientziari dagokionez eta Donostiako lan bulegoari dagokionez, eta eransten du enpresaren bitarteko propioak ezin direla aholkularitza-etxe espezializatu independente gisa aurkeztu, modu ez-automatikoan ebaluatuko diren esleipen irizpideetako bat baitira aholkularitza-etxe horiek.

Horregatik bada, esleipendunaren eskaintzako datuen egiazkotasuna egiaztatzeko, esleipendun horri hau eska diezaioten eskatzen du:

-Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri bat aurkeztea, bi enpresen bizitza laboralari buruz (2013ko urtarrilaren 1az geroztikoa gutxienez), egiaztatzeko ea lantaldeko kideetako lauk adierazitako antzintasuna duten bi enpresetako batean edo bestean;

-zuzenbideko lizentziadunak koordinatzaileen ikastaroa egin izana frogatzen duen ziurtagiria, datu hauek aurkeztuz ziurtagiri horren egiazkotasuna frogatzeko: ziurtagiri zenbakia, organismo ofizial batek emana; ikastaroaren datak eta ordutegiak; non eman den; txostengileak; beste ikasle batzuk; eta abar.

-eskaintzan adierazitako lan bulegoa dela-eta, errenta kontratua, posta etxeko frankeoak, telefono finkoaren, energia horniduraren, uraren eta zaborren kontratuak, eta abar, bulego horren benetako erabilera egiaztatzeko.

Errekurtsogileak eskatzen du ezen, egiaztatzen bada esleipendunak ez dituela agirian eskatzen diren kaudimen teknikoko baldintzak betetzen, esleipeneko

vinculación entre la entidad formadora y las empresas que forman la UTE adjudicataria, y su actividad como entidad formadora en seguridad en la construcción ha sido nula. Además, el curso de coordinador coincidió en fechas con otro al que también acudió y debe tenerse en cuenta que el trabajador residía en Madrid y que la entidad que expide el certificado tiene domicilio en Vigo.

La recurrente afirma también que no es cierto que la adjudicataria disponga de una oficina en la dirección que indica en San Sebastián.

Por lo que se refiere al sobre nº 2, el recurso aduce que se repiten las irregularidades detectadas en lo referente a la falta de dedicación al contrato por parte del responsable de coordinadores, a la experiencia mínima de los coordinadores de seguridad y a la oficina de trabajo en San Sebastián, y añade que los medios propios de la empresa no pueden presentarse como asesorías especializadas independientes, las cuales constituyen uno de los criterios de adjudicación del contrato evaluables de forma no automática.

Por todo lo anterior solicita que, para comprobar la veracidad de los datos contenidos en la oferta presentada por la adjudicataria, le sea solicitado a ésta:

-la presentación de un certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social sobre la vida laboral de las dos empresas desde al menos el 1 de enero de 2013, al objeto de comprobar si cuatro de los integrantes del equipo son trabajadores de alguna de ellas con la antigüedad indicada;

-la acreditación fehaciente del curso de coordinadores certificado al Licenciado en Derecho, mediante la presentación del número de acreditación por parte de algún organismo oficial, fechas y horarios del curso, lugar de impartición, ponentes, otros alumnos, etc., al objeto de comprobar su autenticidad; y

-contrato de alquiler, franqueos de Correos, contrato de telefonía fija, de suministro de energía, agua, basuras, etc., de la oficina de trabajo indicada en la oferta, al objeto de verificar la realidad del uso de la misma.

En el caso de que se compruebe que la oferta presentada por la adjudicataria no cumple con los requisitos de solvencia técnica exigidos en el pliego, la

foru aginduaren deuseztasuna adieraztea eta gainerako eskaintza aurkeztuak berriro kalkulatzeko.

Eta esleipendunaren eskaintza ez bada baztertzen, errekurtsogileak eskatzen du esleipendunaren puntuazioa berrikustea, puntu hauek direla eta: "Hobekuntzak, errepideen artapen laneko segurtasun eta osasun gaietan adituak diren aholkularitzetan"; eta "Hobekuntzak, instalazio elektrikoek mantentze lanetarako segurtasun eta osasun gaietan adituak diren aholkularitzetan". Horren arrazoia da ezen, aurkeztutako eskaintzan, bi enpresetako pertsonal propioak eman dezakeen aholkularitza bakarrik aurkezten dela, eta hori ezin dela, errekurtsogilearen iritziz, aholkularitza-etxe espezializatuen zereginizat hartu, enpresa bakoitzak duen diziplina anitzeko taldearen aholkularitza baizik.

